Nourbaitek alegatzen zian Jinkorik eztela eztzialakoz ikhoussi behin ere. Bestebatek berhala : « Holaz, jauna, nik ere erraiten ahal dit zuk eztuzula ezpiriturik, ezpeitut ikhousten ».



J. COMPAYRÉEN LIBRIAZ

IBEROUKO Errejentetarik haborouek, eskolako haurren eskietan ezarri die librubat, kartillabat deitzendena : *Manuel d'Education civique et morale par Compayré*. Kartilla gaichtoua da, hanitch gaichtoua. Ikhous dezagun bouchibat, jakinerazteko aita amer, haien haurrer zer erakousten deren eskolan ; berek ikhoussiko die zer egiañin behar dien hortzaz.

* * *

Elizaren erakouspenari buhurtzen da kartilla houra hanitch phuntutan. Eta houna zer erraiten dian behinik behin ezkountziaz : « Merak egileten tu ezkountziak. Fa-a milia berribat eraiki nahi dien gizounak eta emaztiak,

K

« meraen aitzinian hitz emaiten die algar maithatzia, algar
« begiratzia. Merak erran dianian juntaturik direla, mun-
« diaren eta leguaren eretzeo bi algar hartia ezkoun-
« turik dira. Meraen zeremonialik landa izaten denian
« Elizakoua, eztero haren emaiten indar haboro egunek
« denari, urhenturik da : bena ezkountiak badoualza Eli-
« zala, bere beitzen nahi beitie hartu Jinkoua, meraen
« aitzinian egon eta bete dien ezkountziaz. »

Berekatuts elhe, berekatuts !

Kartilla ttipiak orano haboro erraiten. Beha : meriatik
jelki den arrabari George ttipiak erraiten du : « Ezkira
« jouailen Elizala ere ? » — « Ene kugnal ttipia, dio sen-
« harrak, entzun beetziaren jouanen gutuzu Elizala Jinko
« hounari galthalzera benedika dezan goure ezkountzia ;
« bena gaурgoiti ezkounturik gutuzu. Ezpaguntu nahi ere
« Janartorak hartu Elizan, bardin ezkounturik guntukezu.
« Ezta eguna, hori, Madama ? » — « Eta emazte gaztiak
« erritobaleki guegna, ezlzelar arrankura eman hitzaren
« haustiaz. »

Berekatuts bethi, berekatuts !

Aldiz, zer erraiten deiku Elizak ezkountziaz ? Erreligioneko zeremonia bera dela, guizounaren eta emaztiaren batzatia eraikitzen diana sakramentiaren goratarzuniala ; eta ezkountier emaiten grazia berheziak bere eguinbiden bethatzeko ekhoizpeneki eta merechimentueki. Eliza izan da bethi buru guizounak eta emaztiak algar hartzian ezkountzez. Meraen aitzinian eguiten den erejistratzia, mouda hanitck befriskoua da, eta izan dadin leguiak manhatzen dian bat. Eguia baliz bezala kartilla hortako erran hori ezkountziaz, goure haurrer arraerranerazi nahi de-reна, bourhau bat da, blasfemio bat da.

* * *

Ezkountzian ezpada Erreligiona beharrik, kartilla horek diouana, ez eta ere arren haurren ikasgarrian eta egungarrian eraikiteko.

« Emazu arren bertan, dio haurrari kartillak, ikhasten

« noula zoure balhuner ekhar eraziko duzun, bizitzeko
« uztla, ahal bezagn beste berthute eta ountsa izate. Hori
« erakoutsiko deiku mouralak; mourala beita errepletzione
« orroren haillikoua, khorpitzen baliatziaz eta arimaren
« jorratzian guizounek eguin dutien esperientzien hailli-
« koua; mourala da, goure ariman naturak sarthu dutian
« leguen tchinteiria. Behar ountsaren eta gaichkiaren ar-
« tian den berhezigoua. »

Berekatuts eta hailliko. Hailliko eta berekatuts !

Agueri da zougnen hurrun jouan Ahal leitien gaichkiaren bidian guizouna, bere buriaz beraz guidaturik ; ezpalu erakasle, Elizak diouan bezala, Jinkouaren errana : zer den ountsa, zer den gaichkia, zertan dagouen bataren eta bestiaren saria eta gastiguia.

Kartillan erraiten du Compayrek « haurrak, heltu de-
« nian majoriala, nahi dianaren egualeko bere burian, bere
« kountzentzian eta eguitatez libre dela, eta eztela aita
« amen manupian 21 ourthetarik harat. »

Holaz, familiako izatian, Jinko houna elizate deusetan ere. Eta guizounaren eraikitian, mouldatzian, Erreligiona, Jinko houna bera auherretan lizate ; elizate hen beharrak. Jo aitzina !

Holaz orano, familiak izaten, eta eraikiten ahal badia haurrak Jinko houna gabe, eztuke arren Jinkouaren beharrak denboraren urhentzian ere. Eguia bada ere kartilla mintzo izanen den beste bizitziaz : bena eztaite kounpreni zertako guleroko bizitzia, mundu hountan Jinkoua gabe izaten ahal lizatekianarentako.

Haboro dena, zer balio du elhe horrek erran ondouan haign beste, sinhets erazi nahiz erreligionia apart, mundu hountan dela ountsa izate ossoua ?

*

**

Hirour phartetarik biak kartillan erranik dira Erreboluzioniaren laidatzeko. M. Compayrek dio Erreboluzioniatik berak guizouna arraphiztu diala. Luzaz mintzo da erraitelko familia zer zen Erreboluzione aitzinetik.

« *Khristitarzunak*, dio, aiphatu gabe familia zer zen
« Moisaren denboran, *tcherkatu du familiaren khanbiat-*
« *zia eta ezlitzia*. Haregalik, *Frantziako Erreboluzionia*
« drano, aitaren photeria photere osoa zen; ez buruza-
« *gifiaren photeria esklabouan* (*Erroumanen artian bezala*).
« *bena erregidebaten photheria bere sujetetan*. Haurra sor-
« *lzen zen edo fraide edo komentuko*, etc., etc. »

Holako astokeriarik erraiteko, *Comipayrek* izan behar du edo fede gaichto, edo jakitate gabe. Ez tu arren irakourtu Elbanjelioua ez eta Joundane Pauleren leterak zougnek erakousten beitie aita amen zuzenak zer zien? Erreboluzioniak gizouna eztu arrapista, bena bai, familiaren izate egiazkoua kanbiatu. Eta saintien bizitziak emaiten dutian mouldiak, haur behar bezalakouaz, Jinkouaren amouriouaz eta protsimouarenaz, gisakanago dira bi hitzez, eziaz eta *J. Comipayrek* Erreboluzionetik jin erazi nahi lutukianak. — 1789^{en} aitzineti haurak libro zien hartzeko nahi zien estatia.

J. Comipayrek erran beza nahi badu 1876^{tarik} hounat hobeki badouatzala etchiak, herriak, departementiak, Frantzia oro; aski da sogosia ikhousteko bagouatzala guibelialat egunetik eguniala. Haurra ezta haboro phousaturik komentalat, bena bai ostrialat: ezahal beita hobe.

J. Comipayrek dio, Erreboluzione aitzineti eztela eskola bait baizi 15-20 herrientako. Pharka, pharka hati beitzen gutienik parropia bezagn beste eskola; bena ez oraikouak bezala katichima gabe. 1789^{eko} Erreboluzioniak desegun tu eskoletarik pharte houn bat, eta 1850an berriz hedatu da eskola.

Eztugu aski leku erraiteko zounbat gainti atekatutrik dien kartilla hartan, aiphaturik den Erreboluzioneko tchanpa handian: *Liberté*, *Egalité*, *Fraternité*. Galtha Ziberoutarrer zer dioien karraska eder horiek. Ezin ukhatzen ahal dena da *Liberté*, *Egalité*, *Fraternité*, edreiten diela paperetan eta merietako murrietan izkiriaturik.

Kartilla *Compayré* ḡezur biribilez bethe bethia da, Errepublikan sinheste har erazteko eḡfinik; libruttobat ossoki buruz kountre dena katichimaren eta Elizaren erakouspenareki.

Beste alde *Elizak* koundenatu du kartilla houra. Hartako *Katoliko* denak eztu, ez beḡiratzen ahal, ez eta erakousten. Aita amek behar die bere haurrer defendatu haren ikhastia eskolan; eztu ere leḡsiak manhatzen. Behar die buhurtu eskola eḡsiler, eta saihetsialat ezar erazi, bai *Compayreen* kartilla eta beste halakouak. *Szialat arren hourak oro*, eta aita amek bere eguinbidia dukie eḡfinik.



KASETAK

AITZINE hortan, kasetak ere sartzen h̄ssi dira Ziberruan. Kasetak izanez gueroz, Maulen eta Atharratzen, arauz zombait erakourten zen. Kampagnetan Janartorak baizik orai artino etzian errezebitzen. *Eḡsia badere*, artetarik bakhoitz elibat jiten zien hiritik, bena chardina edo phiper beltch ountzi eta nihourk etzeien kaſsurik eḡsiten.

Egunko egunian haregati besterik da. — Kaseta bakhotcha sos saltzen da Maulen, eta Atharratzen. Hantik ~~basa~~ bazterretara hedatzen dira; errejentek ere errezebitzen die postaz dozena edo dozena erdi kaseta gaisto han hemen barreiatzeko. Kaseta horietarik habrochiak gaistouak dira, erran naki dut, Erreligionaren kountre inphiltu. Badira haregati laborari bakant elibat irakourten dutienak, duda gabe, irakourten badakiela erakousteko, edo bestek beno haboro zerbaite badiela. Ameriketarik sos zombait sakolan utzuli direnen buru-

neia da ere, pilaz gora irakouriko badire ere, ikhoussi dut noure begiziez.

Badira berheziki bi kasetea, kanpagnan arrount hedatu nahi lutukienak. Hourak dira : *L'Indépendant* eta *La Petite Gironde*. Bazterretako irakourzaletan hanitch guti dira *politikan* zerbait konprenitzen dienik. Beren kasetea tzarretarik baratzen zeien ekhoizpena da deus jakin gabe, gaiza orotaz mintzatzeko tireia bat, eta berheziki, Erreligioneko sendimentien epheltarzun handibat, irous ezbadutie ossoki galtzen. Eta guizon houfrak berak kasetetan hain aiher direnak, Elizan ikhoussiko tuzu liburu gabe, debeiu, uduri bobadaren estokatu behar direla.

Egun batez izentatuko ez tudan hiri batetan bathuan kasetea irakourle hetarik bat. Mintzatzen ~~hassi~~ ^{gu}zinen politikaz, erreligionez eta beste asko gaizaz. Ene ~~gu~~zona khountatzen hasten zait, noula erreligionia etzen haboro moudako, noula berere aragantsolatu beharra ziren, noula aphezak ere ~~gu~~zon inutilak ziren, eta beste hanitchto guisa hortako solaz. Ber ahajdian chuhulatu deitadanian oren laurden bat, llabur llaburra mousien dirot konbersa hitz horiez : « Adiskidia jokha nirozu gaiza eder horiek irakouri tuzula Petite Gironde deitzen den kasetan ». Hatsarrian ukhatzenzian ezetz ; hatik azkenekotz aithortu zeitan hala zela. — « Zounbat denbora du kasetea hori erakourten ~~erakourten~~ ^{duzula?} » — « Bi ourthe hountan. » — « Eta arren adiskidia denbora guti aski izan duzu zoure kasetan diren ideia tzarren hurupatzeko. Ezi phentsatzen dit kasetea hori irakourten ~~hassi~~ aitzinian beste begiz so egiten zuniala aphezer eta Erreligionari. » — « Bena, Jauna, ihardetsi zeitan, ez ^{ik} irakourten kasetea, ~~bai~~ik ere jakiteko zer ^{dabilan} bazterretan ; segurtatzen zutut eztiala efetu handirik nitan egiten. » — « Ez, ez, gainti egiten duzu, adiskidia erraiten derot ; aphezen gagnen erassi deitzadazun horiek oro, irakouri tit goiz hountako kasetan ; nihark ^{ik} goiz haintan, Atharratzen nintzalarik Petite Gironde irakouri dit. Ez teia egia? » Bortchatu izan zen aithor-

tzena. Eta besteagorik gabe, algar utzi gunian, azkarki engajatzen nialarik bazterrilat utz letzan sordetstuki baizik ezluti en irakourtiak.

Hanich balinbadira liburu eta kaseta gaisto irakourten direnak, hala hala, egunko egunian gutidira nouiztarik nouiztara katichima ara igaraisten direnak, lehen komunioneti landa. Diala berroguei ourthe eztzen neke khau-sitzia gogoz katichima zakinik. Egun aldiz ehi liateke khountatzen, nahi bada eskola hedatiago den. Ezagutzen dut haregati Maule ondo ondoko guizoun zaharttobat (badutu laur etan hoguei ourthe igaranik) egundano ahatzi eztiana bere katichima, Oloroueko katichima zaharra ; eta artetarik orano so zounbait eguiten dero. Nahi nuke Ziberouko laborari guziek jarraiki lezen haren etsemplia. Segur, bena segur, ala-tchoria, hobeki baliatuko zaie, kaseta eta kartilla tzarren irakourtia beno.



Guzoun bat, behaign guisako, laket zen libru aizetsu irakourten ; emaztiak aldiz kerementa egiten zeron bere kostuma charaz.

« Balio din, nou, hola jar adinene irakourtegatik ! Zer « nahi dun egiten dizaden ? Irakourtu tudaneko ahatzerik « ditignat. » — Alhabak sahetseni : « Aita ! zer jan « dugu igantian ? »

Egurukiten eztzian galtherrez estonatucherik, aitak alhabari : « Eztignat orhit batere. » — Arren, ori abillki alhabak aitari : « Aita, eztuzu orhit zer jan duzun, eta hategi hazi zetu. » Aitak alhabari potttobat erritobateki ; eta orena muga, utzi zutian irakourte aizezko hourak.



1886eko ERREKOLTA

AURTHEN aski neke izan da jakitia zer izan den oguika. Zonbait kartieletan goizik egun da, bestetan berantchiago. Berant jin dira ere goberniak ukhen dutin abisatziak. Laborantzako ministroioko kargulantak okupatiak ziren, prefeten bidez, laborantzaren intresez okupatiak ziren zozietaten theriatzen.

Ministrouak berak bakantzen pharterik handiena igan du paseiun, edo bere bidian bathu din bilzar laborantza-kouetan. Eztu jakin uken besterik eguiten, baizik ere Frantzia galtzen din errepublikaren laidatzen; ez besterik erraiten, baizik ere hitz holako zonbait : *Errepublikaren eguinbidia da, orai, Frantziaren hounaren tcherkatzia*. Orai eia? hitza pollit da, errepublika denborako 16 erre-koltatarik landa, Frantziako laborariekin 16 ourthez ukhen dien jenamentu handienetik landa.

Lehenik behin, deus segurik etzakielakoz, erranik izan da 1886eko bihi errekolta ourthe mehe bat zela kalitatez eta kantitatez. Behin behin ouste ukhen du ordian laborariak bere bihiaren balioua emendatuko zerola, eta ezta egun. Guero beste damu handi baten bidian da guisa hountan : Frantziako ogui eskaz beldurrak ikhous-sirik, estranjera preparatu da aurthen ere kanpoti ogui sarerazteria eta horrek du behar Frantziako laboraria osoki jardietsi edo galdu, zeren hebeko laborantza ez-peita aski sustengaturik, kanpoko oguiak heben sartzeko ezpeitu aski legar phakatzen.

Eguiaz mintzatzea aurthenko ourthia ezta jeneralian gaisto. Bihi zaharrak juntatzen badira berrier, aurthenko 95,000,000 hectolitrer, Frantziako beharruniak suppli-tzen ahal dira ogui estranjera gabe.

Agrikulturako ministrouak uzten zin deboran berri falsiak kouritzera, komerziokouak gasetetan ezarrerasten

zin nota hau : « *Ogxi zaharraren prezioua emendatu delakoaz eta Jakitiareki goure errekolta escaz zela segur, Ameriketako ounlzi elibat kargatu dira 200,000 ogxi sakuaz Frantzialako* ». (Hoi zioien gagenta errepublikegnek igaran setemerez, 10 edo 12^{an}).

Etzen bi moien baizik mundiaren trankilisatzeko ; gaistouena hartu die, segur etzen errekolta eskaza kridatzez ; ezi eskaza nasaiki suppliturik zen igaran ourtheko soberakin beguiatiez. — Hanbat gaisto Frantziako laborantzaren eta ikhoussikobeitutu prezioak aphaltzen, eta ezpeitu ediren bere eskazkeiaren kounpensazionerik.

Beste konkurrentzia bat orano abiatzen da, Indesekoua. Han guerouago haboago bihi eguiten da ourthe oroz. Zakia han khostatzen da *bederatzu libera* eta 14 sos ; portak *hirur libera* eta erdi du balio Londres artino : Zakia aren 13^{lib} eta 4 sos jitenda.

Mehachu horieki, noulaz egon kanpoko oguiaridretak emendatu gabe sartzian, Frantziako laborantchak bizi behar badu. Hartakoz, 1887^{ia}, beste ourthiak beno gaistouago izanen da, eta Lori, Errepublikako gobernia eta Khamberako majoritate gorria delakoz. Ber gaiza erraiten ahalda kabaletari egurukih behar den mouzkinaz.

errekolta hanich houn izan da departamentu batetan, houn hemeretzutan, aski houn berroguei eta hameketan, gaisto bostetan ; Artekoche hameketan eta gourian :

Arthoua hargati houn izan da Ziberouan berheziki.




AIHENAREN ERITARZUNA

AIHENAK badtu bi gaitz ; bata *phylloxera*, lantharia eihartazten diena, zerren eta zorri chehe bistaz agüeriezti saldo handibatek zagna jaten beiteo. Ez guira horrez mintzatuko. — Bestia *mildiou* deitzen da ;

ostoua erorazten du eiharturik, tenoria gabe, eta mahatsa ezta hountzen, agitu den bezala igaran ourthian eta aurthen ere, gutiago hargati. Erremedio segura, probatia hau da : Nahastia algarreki latsun eta bitriol blu (*sulfate de cuivre*) aldia bat hour sorta handi batetan, eta hourtu dienian nahastez, aihen ostoua ihirztatzia hareki gagneti behera. Guisa hortan trataturik izan dien aihenek orok beguiratu dutie ostouak, mahatsa hountu zaie (*agüeri* den bezala Mauleko Jaun Meraren mahastian), zoura hanitch eder die dagun ourtheko, eta arduo egipinak markatzen 9edo 100.

Aldiz hola trataturik izan ezten aihenac goizik galdu du ostoua, mahatsa gaizki hountu da eta haren ardouak eztu 5º baizik, nahi bada mahatsa ountsa hounturik udrizukin. Añen segur da erremedioua, eta segur da arduari ezterola deus gaistorik emaiten ossagarioren-tako.

Beharda *ehun boutilla* hour. Bestalde hourteraz ezazu *hamabost kilo* latsun guizen edo chouri hoguei eta hamar boutilla hourteraz. Aldiz *zortzi kilo* bitriol blu hourteraz beste 1 boutilla hour bero etan. Oro algarreki nahassirik, eguiten die ehun eta hirouretan hoguei eta hamar boutilla. Aski dira hirour mila aihen ondoren tratatzeko. Lilitik landa berhala, denbora idor batez, aski da ostouen ihiztatzia, ilharriez egiten den eskouba bateki. Phuntian eguiten bada, aski da behin eskoubatzia, edo ihiztatzia.



TOUMATEN LANHADURATIK
BEGIJIRATZEKO

BEJAR da bitriol blu hourterazi hourian eta harrez ihiztatu tomatatziak lanho den goiz oroz, ekhia jeiii gabe. Ekhiak, joiten badu lanho khozia din toumatetzia, eritzen du; horra zer gati din behar chahatu

ihiztatzez ekhia jeiki gabe. Hour hutsez beraz ausarki chaha baledi, hora ere houn lizateke. Hobena da hatik hour bitrioltatia. Sos baten bitriola bost phartetan ezar ezazu ; pharte bakhotcha hourteraz ezazu hirour fereta hourtetan, eta gagneti behera ihitzta lantharia. Ehun eta berroguei eta hamar ondo guisa horrez, egun oroz khountu, ihiztatzen ahal da zortzi sosen bitriolareki. Erre-medio hori bera houn da lur sagarren eta ere ahenaren begiratzeko.

2

ORAI ERESSI EDO KHOUNTU ZOUNBAIT

LEKUPHAUSSUKO Janartor zaharra ari zelarik, igante batez, phederikatzen, eta behazaliak aharaussiz, ikhoussi zutian jaun mera eta jaun ajuenta biak lo, koladaz, eta kourrounkagnibat ere bai entzun. Noulabi kargulantak algaren kantian beitziren, biguerrenari buruz erran zian phederikariak : « Jaun ajuenta, pharka amuratten zutudalakoz : zure lo heotsa handitto duzu ; jan mera iratzar eraz ahal ziniro. Balinba beste lo zirenak ere iratzarri ahal izan ziren.



Michel da guizon triste bat, aigardentari emana. Janartorareki bidian buru eguiten du : « Ah ! Michel maitia, etsai bai baduzu, galdu nahi zutiana eta hareki baizik eztuzu hounik. » Michelek : « Zouin da hora, Jauna ? Ene etsaiik batere eztit ezagutzen. » — « Gaichoua ! eta hora duzu aigardenta, sobera maite duyuna. » — « Jauna, zuk erakasten derikuzu behar dela bere etsaia maithatu ; arren eztit gaizki eguiten, » — Erretorak :

« Bai, erakasten dit etsaia behar dela maithatu, bena ez behar dela iretsi ! »



Hor noumbait, Manechen gaitian, Amerikano batek erraiten zian beste bat: «Ameriketan baduzu segur erreligion ederra nahi dianarentako.» Beste guizonak ihardesten dio : « Duda gabe, han izan behar dizu hanich ere ; ezi guziek harat eraman ukhen duzie zunien erreligion khochia, eta hanich utzultzen zidie khochu hora ere han utzirik. »



Frantziako hiri batetan feidak aguitzen ziren mehe egun batez. Eguerditan bazen ostattian jente franko. Guizon katoliko batek, bestiak ere arauz hala ziren, soguitendu mahagnetara eta eztu guizen eta guizen baizik ikhousten. Galthatzen zerbutcharier ekhar diezen zopa mehia, beste zerbait mehekuntereki. Boulta baten burian, ekhartene dere galthatia. Mahagn baten burian hastenda bera jaten. Bena guizen eguiiliak laster hasten zaitzo trufatzen, bere kontzentziako oihia nahiz ichile-razi, ahal. Han zen jaun Aleman bat Frantzez batek erraiten dero : « Ezteia hala, Jauna, eztia guizon horrek zozokeria handia eguiten, bestek bezala ez jatez ? » Alemanak ihardesten dero : « Ni ez nuzu katoliko; bena hala banintz, guizontto horrek bezala eguin niro, ezpeniz poutrougn zar bat ; horen korajia haboro estimatzen dit besten espantiak beno. »



Laborari batek, amignibat ihsilari, saltzera erouaiten zutian bi erbi zakubaten zolan ; eta eztzen libre orano ihizteka. Kantiala hullanturik ostalerbatek, bere oustez abill, zakia hounk, eta : « Zounbat nahi duzu bi ahugne horietan ? » — « Bi erbi tuzu. »

« Ikousten dit, » buruz unguraturik bi jandarmen al-dialat.—Arren, nahi dit hirourna libera—Emaiten deizut bietan hirour libera — Eztziot — Emanen tuzu hortan, eta bestela jandarmez zakia ikher erazten deizut.

Eztzen net gocho elhe horren entzutia, bena zer egun? Proses berbalik uken nahi gabez, laborariak, har hirour liberak, eta ostalerari eman zutian erbiak zakia-reki, erranik, merkatutik etcherat gabe, hartuko ziala zakia.

Ostalera bichtatik galdu gabe, guizouna jandarmetara jouan eta erran zeren : « Hantcheko ostaler harek zakian ihize erouaiten du. » Jandarmak, zalhe oundotik, ikher zakia, eta proses berbal. Arte harten laboraria laster etcherat. Ostalerak aldiz amanda eta despendio 80 libera bizkarrialat.

Karamatika char batez, ostalerak bildu nahi uken zutian hirour liberak, goratto gin zeitzon. Erran gabe da, laboraria eztzela jouan ostatiala zakiaren ondouan. Abil-lari abill eta erdi !



Guizoun totots batek, hora uduri eztzen bati ari zen trufaz beharriak handi zutialakoz : « Hala duzu, erran zeron bestiak ; bena ere, aithor ezazu, zouriak ttipiegia diela astobatentako.

Phous, 1891
arkhion 127

→ Kapochi bat, biltzen unguria eguinik, komentalat ut-zultzen zelarik hatu ountsareki, oihan bazter bat gainti, aitziniala partu zeron ouhogn bat ; papoti lothurik, bizia edo moussa ! Gacho guizounak, prabe dela, komentia prabe dela, ungurubat eguin diala biltzen komentia-rentako. Eztzen hoberik, Bizia edo moussa ! Eta armabat sakolatik idokiten du brigantak. Zer egun? Bortchak jo-rik, zakia phaussa lurrian, hora zabal, eta erraiten dero : « Har ezazu nahi duzuna ; horra ogia, ourdaki eta gazna phouska. » — « Bena moussa ! » dio brigantak. Bastera heltu zen. Sosbildiak sakolatik idok 36 libera, eta emai-ten deitzo.

Nour bere alde badouatza. Zounbait urhats eguin die-neko, kapochiak oihuz: « Jauna, jauna, zerbait erran nahi neizun » — « Zer da ? » — « Erremestiatzen zutut bizia utzi beiteitazu ; bena, komentiala heltu nizatekianian, zer erranen deitade ? Arrobatu naiela sinhetsirik izanen niza ? Aiharia erouan deitadela ? Oh ! Jauna, zer eztut behar entzun, eta benturaz ikhoussi ? » — Ouhougnak : « Urra ezazu zakia ; ikhoussiko dizie arrobatu zutiela » — Kapochiak : « Ez tukezu aski ; thira ezazuene kapari pistolet kolpu bat, eazaru bahi bezala, ikhous dezen bortchatu izan nizala ene bildien emaitera. » — Ouhougnak : « Bai ; kapa zabal ezazu ». Thiratzen du : bam ! Kapochiak, so ; deus ez ta agueri. Zer erran nahi da hau ? Ouhougnak : « Pholbora hutsez kargaturik nizun ; lotserazi nahi zuntudan, bena ez gaichkirik egun » — « Eh ! mena baduzu orano beste armabat ? » — « Ez, ez. » — « Ah ! eza ! » Hau dela lephotik lothurik kapochia, ezpeitzen lotza aphottorouen, azkamaldibat behar bezalakoua brigantari : « Ale kokia ! orai bardinetik be-har diagu jakin amaren thitia zougnek hobeki egoski dugun ! » — Ejerki marruskatu ondouan, uztendu he-daillo briganta.

Har Zakia eta sosak, laster komentialat bere balentiaren khountatzera laguner. Ouhougna ere, arauz, jeiki zen ahal zenian.




Liberté, Égalité, Fraternité !

1848^{ian}, Ziberouko plazabatetan, solaz handi orok : Biba liberté, égalité, fraternité !!! Herriko errejenta asserik azkenokotz entzutez ber oihia, erraiten dero kantian zian mothiko handibati : « Badakika zen erran nahi den : liberté, égalité, fraternité ? — « Ez nik ez. » — « Horri erran nahi duk : aberatsak olloua thiipignan, guk, aldiz, ilharrez zopa ». — « Alaturik goihena ! arren ez tit nahi batere liberté égalité fraternité. » Eztzian haboro ahoua zabaltu.



Abisak

Aurthen lehiakitto eguinik izanda Almanak hau
Ziberouko laborarien. Dagun ourthekoua hobeki
arthatuko dugu, eta, ahal bada, doblatuko. Ema-
nik izanen dira hanitch artikulu edo errezeta
laborariari baliatuko diren etarik, hala noula,
arhan marlatien eguiteko, ardou houn eta merke,
ossagariari damurik eguiñen eztiana, nourk berak
eguiteko, eta beste asko.



Dagun maiaizeko — ANDERE DONA MARIAREN HILABETIA —
arra inprimaturik izanen da.



MERKHATIAK ETA FEIRAK

MAULEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, burullaren 6ⁿ. — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amostetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amost. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amost. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentiaren 26ⁿ. — GARROZEN : **m.**, ostir., amost. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISSARIN : **m.**, neskaneg. amost. ; **f.**, baranthall. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — HAZPARNEN : **m.**, astehartez ; **f.**, Bazko ondoko astizkenian. — IZOURAN : **m.**, asteh. amost. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urietako lehen astehn. — OLOROEN : **m.**, ostit. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz 1ⁿ, *eta* burulln. 8ⁿ, hirour eg. — PAUBEN : **m.**, astel. *eta* osteg. ; **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Joundane Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranthi. heren astizkⁿ *eta* urrietaren azken ostegunian.



Edirenguiia

I Egunaria	1
II Eskoletan gagneko bi leguiak.	7
III J. Compayreen libriaz.	18
IV Kasetak.	22
V 1886eko Errekolta.	25
VI Aihenaren eritarzuna.	26
VII Tomaten lanhaduratik beguiratzeko.	27
VIII Orai eressi edo khountu zounbait.	28

BOURGES. — IMPRIMERIE TARDY-PIGELET, RUE JOYEUSE, 15.